



eskuira

AURKIBIDEA

EGITEKOA	4
Herri bat gara	4
Erabakitzeko eskubidea daukagu	4
Herritarron garaia da	4
Helburuak	5
JARDUERA	5
Ehundu	5
Adostu	6
Erabaki	6
Ekintza plana	7
Prozedura	8
Estiloa	8
ANTOLAMENDUA	9
Egitura juridikoa	9
Egitura ordezkarria	10
Egitura betearazlea	11
FINANTZAMENDUA	12



(Hartzaileari oharra. Dokumentu honek jorratzen du GED dinamikaren 'zoru komuna', hau da, edozein euskal herritar demokratik onar lezakeen planteamendua, edozein dela ere bere pentsamoldea. Horregatik, hitzak eta esaldiak apropos dira leunak, ahal den neurrian ertzik gabeak.

Beraz, ez joan ondoko lerrootan zure pentsamoldea bilatzera, ez duzu aurkituko. Aztertu behar duzuna da ea zure pentsamoldea ere kabitzen den testuan; ze, horrela bada, beste askorekin partekatu ahal izango duzu. Hain zuzen euskal herritarrok partekatzen dugun zoru komuna -eta zoru horren gaineko elkarlana- beharko ditugulako gure erabakitze eskubidea gauzatuko bada)

2015eko azaroaren 21ean, Gasteizen

EGITEKOA

Gure dinamika abiatu zen hiru puntuko aldarri batekin. Gaur egun, honela azaltzen ditugu hiru puntuok:

HERRI BAT GARA

1. Euskal herritarrok osatzen dugun komunitateak baditu nortasuna eta borondatea nazioarteko legedian herriei aitortzen zaizkien eskubide kolektibo guztien jabe izateko.
2. Askotariko pertsonak batzen dituen herria garenez, hiru zutaberen gainean eraiki nahi dugu gure bizikidetza: partekatzen ditugun helburu eta balioen inguruko auzolana, bereizten gaituzten pentsamolde edo egitasmoen elkarrekiko errespetua, eta hauen artean askatasunez hautatzeko aukera.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DAUKAGU

3. Euskal herritarroi dagokigu gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea.
4. Gure gizarte-garapena osoa eta jasangarria izan dadin, estatus politikoaren gaineko erabakia kokatzen dugu dinamikaren ardatzean; aldi berean aitortuz erabakitzeko eskubidea pertsonen eta herrien maila eta esparru guztietara iristen dela.

HERRITARRON GARAIA DA

5. Herritarron burujabetzaren aroa ari da irekitzen munduan, pertsonen eta herrien eskubideak eta erabakiak ondoen bermatzen dituen tresna gisara.
6. Herritarron aktibazioa da garapen kolektiboaren bermea, eta herritarrok elkarrekin jardunda garapen horretan guztiok barnebiltzea lortuko dugu. Esku artean ditugun gai garrantzitsuek guztion esku-hartzea eskatzen baitigute.

Honenbestez, GEDen egitekoa osagai hauek definitzen dute:

HELBURUAK

7. Gure Esku Dagoren helburua da euskal herritarrok dugun etorkizuna erabakitzeko eskubidea gauzatzea, eragile eta erakundeekin elkarlanean eta tokian tokiko borondateari helduta.
8. Helburu nagusi hau lortzeko prozesuak, berez, bestelako onurak ere ekarriko dizkio gizarteari (balore kolektiboak sendotzea, bizikidetzeta eta herri kohesioa hobetzea...) eta horiek dinamikaren helburu osagarriak izango dira.
9. GEDn aniztasunari dagokionez, oreka bilatuko dugu, bai gure barne egituretan, bai gure jardueran. Aniztasuna modu zabalean ulertzen dugu, genero, adina, sentsibiltate ideologikoa, jatorri desberdinak etab., aintzat hartuta.

JARDUERA

Orain arteko ibilbide orrian, hiru jarduera ditugu definituta:

EHUNDU

10. Herritarren artean dauden hormak eta harresiak gainditzeko egingo dugu lan, herriz-herri eta auzoz-auzo, zoru komuna sendotuz eta auzolana sustatuz, banaka eta taldean herritarrak aktibatu daitezten erabakia gauzatu dadin.
11. Tokiko talde bakoitzak bere diagnosis eta ibilbide orria egingo du, ehuntze maila aldiro neurtzeko aukerarekin, eta lan horretarako dinamikaren baitan baliabideak garatuko ditugu elkarlanean.
12. Erabakitzeko eskubideak euskal herritar guztiak bihurtzen gaitu protagonista, gure botua beharrezkoa baita etorkizuna elkarrekin eraikitzeko.

ADOSTU

- 13 Tokiko ehuntze prozesuen baitan erabakitzeko adierazpenak adostuko ditugu, osagai bertsuekin eta errealitate bakoitzaren ezaugarriekin.
- 14 Zuzendaritza Batzordearen eginkizuna izango da irizpide komun batzuk lantzea adierazpenen osagai bertsuen eta metodologiaren inguruan.
- 15 Adierazpenenetik itunera emango dugu urratsa.
- 16 Tokian tokiko galdeketak egiteko aukera landuko dugu herriko taldeetan eta adostu ea posible den, zein galderarekin, noiz eta nola.
- 17 Tokiko adoste horietan sortutako edukietan oinarrituta, euskal gizartean erreferente diren pertsona eta eragileekin elkarlanean herritarron artean adostuko dugu Erabakiaren Ituna, edozein euskal herritarrek bere egiteko moduan.
- 18 Adierazpenak, ituna eta tokian tokiko galdeketak herritarron tresnak dira erabakia gauzatu dadin.

ERABAKI

- 19 Adostu ahala, galdeketak egingo ditugu auzo, herri edo eskualdeetan, egutegi bateratu baten arabera.
- 20 Etorkizunari buruz galdeketa adosteko prozesu kolektiboan galdera mota tokiko taldeak erabakiko du eta dagozkion protokolo eta bermeak erabiliko dira.
- 21 Modua bilatuko dugu tokian tokiko galdeketen parte hartzearen emaitzak metagarriak izan daitezen.

EKINTZA PLANA

- 22) 2016a izango da, auzoz auzoko, herriz-herriko edo eskualdeko galdeketekin hasteko urtea, eta 2016-2018 hirurtekoan ahalik eta galdeketa gehien egingo ditugu, plangintza orokor baten baitan.
- 23) 2016-2018 hirurtekoan lan egingo dugu herritar guztiei galdeketa bat egiteko prozesuaren inguruan herritarrak aktibatze eta galdeketa egiteko behar diren baldintzak sortzeko.
- 24) Herri edo eskualdeko taldeek hartuko dugu galdeketa lantzeko ardura; horretarako sortuko da tokiko bitartekaritza batzordea, aniztasuna bermatu eta lankidetzak sustatuko duena.
- 25) Zuzendaritza Batzordeak protokolo bat onartuko du galdeketen prozedura dagozkion bermeekin burutu dadin. Herri edo eskualdeko taldeak protokolo hori onartu beharko du, tokian tokiko egokitzapenekin.
- 26) Idazkaritzaren lana izango da tokiko galdeketei laguntza teknikoa nahiz babes politikoa eta mediatikoa eskaintzea. Era berean, galdeketen datak egutegian sinkronizatzeaz arduratuko da.
- 27) Zehazki, 2016ko ekainean tokiko (eskualde, herri) mobilizazio sinkronizatuen bidez euskalgizarteari mezu bateratua helarazteko.
- 28) 2016ko egun berean mahai gaineratuko ditugu 'Erabakitze Adierazpenak'.
- 29) 'Erabakitze Adierazpenak' oinarri hartuta, 'Erabakiaren Ituna' landuko dugu euskal jendartean erreferentziazkoak diren norbanako, eragile eta erakunde desberdinekin batera.
- 30) Helburu berarekin, 2016an zehar formazioa izango da eginkizun garrantzitsua, eta hitzaldiak nahiz ekitaldiak antolatuko ditugu GEDren helburu nagusiarekin eta osagarriekin bat datozen baloreen garapenerako: burujabetza, bizikidetzak, auzolana...
- 31) GEDren batzordeei begira, jendartean lan egiteko gaikuntza prestakuntzari garrantzia emango zaio (metodologia, dinamizatorako tresnak, etab.)

- 32. Idazkaritzako kanpo harremanen lantaldeak 2016an lan egingo du alderdi eta eragileen dinamikarekiko konfiantza areagotzeko; orain arte iritsi ez garen kolektiboetara iristeko; eta aliatu izan daitezkeen erakunde eta eragileekin –akademia, kooperatibak, fundazioak, bestelako dinamikak- lankidetzak lotzeko.
- 33. Idazkaritzako nazioarteko lantaldeak bereziki zainduko du euskal diaspora prozesuaren parte sentitu dadila, eta landuko ditu nazioarteko harremanak, prozesuari ahalik eta babesik handiena eman diezaioten.
- 34. Idazkaritzako komunikazio lantaldearen 2016ko eginkizuna, barrura begira, izango da tokiko taldeak dinamikaren ardatzean sentiaraziko dituen barne komunikazioa garatzea.
- 35. Idazkaritzako komunikazio lantaldearen eginkizuna, kanpora begira, bikoitza izango da: alde batetik, dinamikak berak ematen dituen albisteen zabalkundea egitea eta, bestetik, medioetan dabilen informazio eta iritzi jarioaren baitan kokatzea bai dinamikaren ikuspegia, eta baita gure intereseko gaiak eta pertsonak ere.

PROZEDURA

- 36. Dinamikaren baitan elkarlanean garatuko ditugu tokiko prozesuetan lagungarri izango diren tresnak: trebakuntza saioak ehuntze lanean eraginkorrago izateko, gida praktikoa ibilbide orri propioa marrazteko, ebaluazio sistemak (aginte koadroa, inkestak...) eta beste.
- 37. Behin prozesuari ekin eta herri edo eskualdeak ebaluatzen duenean galdeketerako prest dagoela, eskura egongo dira bete beharreko protokolo juridikoa eta aholkularitza, berariazko trebakuntza, kontrol batzordea, komunikazioa eta, oro har, galdeketa arrakastatsua izateko beharko duen laguntza osoa.

ESTILOA

- 38. Orain arteko arrakastan izan duen parte handia ikusita, dinamikak eutsi egingo dio bere estiloari: giro alaia eta bizipoza transmititu, mezu baikorrak eman, liskarrak saihestu, bizikidetzeta eta auzolana aldarrikatu...

ANTOLAMENDUA

EGITURA JURIDIKOA

39) Lehendik dagoen kultur elkarteak moldatuko da (GED-GAB Kultura Elkarteak) egitura berrira egokitzeko. Euskal Herrirako elkarte nagusia izango da GED-GAB Kultura Elkarteak. Nolanahi ere, lurralde esparruetako herritarrek hala erabakiz gero, elkarte bat baino gehiago egon daiteke, beti ere elkarte guztien artean behar bezalako koordinazioa zainduz. Horrez gain, beste egitura juridiko instrumentalak (proiektu jakinen kudeaketarako lankidetzak egiturak, elkarteak, fundazioak,...) sortu ahal izango ditugu administrazioarekiko eta beste elkarteekiko harremanetan eraginkor izate aldera.

40) GEDk herri dinamika izatera du eta aterki bat eskaini nahi die bere helburuekin bat datozen herritarrei xede horien alde elkarrekin jarduteko. GED herri dinamikan GED-kide gisa parte hartuko dugu herritarrok. Kideok GED dinamikaren norabidea erabakiko dugu, eta erabaki horiekin lotutako eskubide eta betebeharrak guztien jabe izango gara.

GED-Kide orok sostengatuko ditugu GEDk jarduteko behar dituen egiturak eta bere plangintzako ekintzak. Hainbat sostengu eta ekarpen ekonomiko mota egongo da, norberaren ahalmenetara egokituta.

GED herri dinamikaren baitan sortzen diren adostasunak GED elkarteak kudeatuko ditu formalki, gardentasunari eta zilegitasunari dagokionez behar diren berme guztiekin.

41) Laguntzaile izateko aukera eskainiko zaie elkarteari ekarpena egin nahi dioten pertsona juridikoei (enpresa, erakunde, elkarte...).

42) Batzar Nagusia (BN) da elkaratearen organo gorena, eta bertan GED-Kideek izango dute botoa emateko eskubidea.

EGITURA ORDEZKARIA

43. Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko (ZB) 25 kide zuzenean; horrez gain, ZBan ordezkari geografikoak ere egongo dira (eskualde ordezkariak). 25 horien artean elkarteko presidentea, presidenteordea, idazkaria eta diruzaina egongo dira (gainontzeko kideen ardura eztabaidan zehar finkatuko da eta horretarako lantalde bat sortuko da Bizkarrezurraren baitan).
44. ZBko ardurak bi urterako izango dira. Epe hori amaitzerakoan, ZBko ardura guztiak berrituko dira. Hala ere, Batzar Nagusiak izendapen berriak egin bitartean, ZBko kideek behin behinean bere ardura betetzen jarraituko dute.
45. ZBko eraginkortasuna bermatze aldera, baliabide teknologiko berriak erabiliko dira kideen arteko harremanak errazteko eta batzarrak egiteko orduan.
46. Halaber, Batzar Nagusiak hautatuko du Berme Batzordea (KB), 5 kidez, gutxienez, osatua, etika, liskarrak eta galdeketetan aholku emaile aritzeko eginkizunarekin. Berme Batzordeak izaera independentea izango du, bere eginkizunak gardentasunez eta berme guztiekin bete ditzan.
47. Azaroaren 21eko Ez ohiko Batzar Nagusian izendatuko da Idazkaritza-talde berria.
48. Herria edota auzoa izango da jarduera ikuspegitik antolamendu unitatea; aldiz, Zuzendaritza Batzordean (ZB) ordezkariitza zuzena lortze aldera eskualde bakoitzak ordezkaria izendatuko du lan horretarako, eta aukera izango du, nahieran, bere antolaketa eta jarduera ere eskualde mailan burutzeko.
49. Eskualdeko ordezkari bat baino gehiagok parte hartu ahal izango du ZBaren batzarretan, baina boto bakarrarekin. Haien artean ere, txandaka parte har dezakete.
50. Tokiko taldeak autonomoak izango dira haien jardunean, beti ere Batzar Nagusiak aldiro ezartzen duen markoaren baitan. Ezadostasunak Berme Batzordean ebatziko dira.

51. Arnas luzeko gaiak hausnartzeko ekarpen gunea izango da Adosgunea, herri, hiri, eskualde edo sektoreetako kidez eta dinamikaren aholkulariz osatutako bilkura, ZBak argibiderik behar dituen gaietan. Izaera dinamikoa izango du bai bere osaketari dagokionez, bai bere eginkizunei dagokionez, bi arlo horietan gardentasunez jokatuko dela zainduz.

Bere proposamenek ZBaren edo BNaren onarpena beharko dute indarrean sartzeko. Tokian tokiko Adosguneak sortu ahal izango dira, lurralde mailan GEDren zabalkundean laguntzeko eta aholkularitzan aritzeko.

52. Bai sektoreetan eta bai atzerrian taldeak antolatu ahal izango dira, esparru bakoitzaren gai espezifikoak dinamikan integratzeko.

EGITURA BETEARAZLEA

53. Idazkaritza arduratuko da dinamikaren eguneroko kudeaketa orokorraz, Zuzendaritza Batzordearen esanetara.
54. Idazkaritza ondorengo arduradunek osatuko dute: lurralde bakoitzeko arduradun bana, idazkari teknikoa, diruzaina, kanpo harremanen arduraduna, komunikazio arduraduna, diaspora eta nazioarteko arduraduna, ZBaren arduraduna eta urtean landuko diren lan ildoen arduradun bana (galdeketak, adierazpenak, ekimenak...). Betiere, urtez urte eta beharren arabera moldatuko da idazkaritzaren osaketa.
55. Herrialdeko arduraduna herrialde mailako batzordeen onespena behar du.

FINANTZAMENDUA

- 56. Urtero ahalegin berezia egingo dugu urteko diru kontuak berdintzeko, aro berrian iraganeko zamarik gabe sartu ahal izateko.
- 57. Idazkaritzak kudeatuko duen aurrekontua izango da Zuzendaritza Batzordeak aurkezten eta Batzar Nagusiak onartzen duena. Urteko BN ohikoan iragan urteko aurrekontuaren kudeaketa ebatziko da eta hurrengo urtekoa aurkeztu eta onetsiko.
- 58. Dinamikaren egitura gastuak estaliko dira GED kideen (bazkide, saretu eta laguntzaile) ekarpen ekonomikoekin.
- 59. Antolatzen diren ekimenetan ahalegina egingo da ekimen horiek bere burua autofinantzatzatu dezaten.
- 60. Elkarteak independentzia ekonomikoari eutsiko dio; horregatik erakundeengandik lor ditzaken dirulaguntzak ekimenetara bideratuko dira eta ez egitura gastuetara.